

Egilea: **MARCO BERRETTONI CARRARA**

Irudiak: **CHIARA CARRER**

Itzulpena: **FERNANDO REY**

Azal gogorrean egina. 22x22 cm.

32 orrialde, koloretan. Hizkuntza hauetan:

-Euskara: "Sara, nor zara?". Kalandraka - Pamiela
ISBN 978-84-7681-608-0

-Gaztelania: "Háblame". Libros para Soñar
ISBN 978-84-92608-25-6

-Galegoa: "Fálame". MareMar
ISBN 978-84-8464-729-4

-Katalana: "Parla'm". Kalandraka - Hipòtesi
ISBN 978-84-937469-3-3

-Italiera: "È non è". Libri per Sognare
ISBN 978-88-95933-24-5

Prezioa: 13 €

SARA, NOR ZARA?

...Sara horrelakoa da, orduak ematen ditu geldirik, hitzik esan gabe, entzun gabe, begiratu gabe, gehienetan ez da inorekin jostaten. Nora ezean dabil beti bere pentsamenduetan murgilduta, inork ez daki non edo nola, bere munduan bizi da beti, bakarrik...



"Sara, nor zara?" autismoaren fenomenora hurbiltzeko modu poetiko eta goxoa da. Narratzaileak ederki kontatzen digu nolakoa den bere arreba: haren presentzia misterioitsua, haren aldarte ezin aldakorragoa, arrebarenganako emozio eta sentimenduak, familiarekin duen lotura mota... Komunikazioa, elkarri ulertzea, beti da zail samarra, baina Sararekin... Izugarri berezia da.

Irudiak paper margotuaren gainean daude eginik; marrak dira, edo marrazkiak, edo itzalak. Collage modura, ukimenerako azalretan aplikatzen diren irudiak. Testuak modu literarioan adierazten duen hori bera transmititzen dute irudiek forma eta koloreen bidez: abstrakzioa, absentsia, misterioa, goxotasuna, bakardadea, izua, samurtasuna, haserre...

KALANDRAKAK, liburu honekin, berriz heltzen dio hezkuntza premia bereziak dituztenen munduari; oraingo honetan, hurbileko senitarteko baten ikuspuntutik, bizipenak eta kezkek partekatzen baititu. Bestetik, Makakiños bildumak, BATA elkartearen laguntzarekin SPC piktogramen lengoiara egokitzen ditu haurrentzako literaturako ipuin tradizional eta klasikoak ("El patito feo", "El pequeño conejo blanco",

"Chivos chivones", "La ratita presumida"). Makakiños Día a Día bildumaren bitartez ("Nicolás va de compras" eta "Nicolás cocina sin fuego"), berriz, autisten autonomia bultzatu nahi du, eta, horretarako, ingururenarekiko interkomunikaziorako zenbait gida dauzka.

MARCO BERRETTONI CARRARA (Erroma) Margoketa eta antzerkia ikasi zituen Erroman eta Parisen. Mauro Bolognini maisuarekin batera egin du lan antzerki muntaia batzuetan. 1990az gerotik, eskolako antzerki-lantegi batzuen arduraduna, eta haietan testu klasikoak eta tradizionalak egokitzen ditu. 2000. urtean Chiara Carrer-ekin hasi zen lanean, haurrentzako liburuak egiten.

CHIARA CARRER (Venezia) Erromako Arte Ederren Akademian eta Arte Aplikatuaren Eskolan diplomatua. Besteak beste, sari hauek jaso ditu: Unicef Saria (1995), Bratislavako Urrezko Sagarra (2003) eta Andersen Saria (1999). "Ilustrarte" Ilustrazio Biurtekoak aipamen berezia egin zion 2007an. Bere lanak herri askotan erakutsi dira: Frantzia, Italia, Japonia, Brasil...

- **Gaia:** neska autista baten mundua, haurren ikuspuntutik kontatua
- **Adin egokia:** 6 urtetik aurrera
- **Nabarmenezko moduko datuak:** KALANDRAKAK Makakiños bilduma argitaratzen du, hezkuntza premia bereziak dituzten umeentzat
- **Aplikazioak:** sentimendak, inkomunikazioa, anai-arreben arteko harremana, berezitasunak, adimeneko desgaitasuna

